

DATORRENA

Burubeltzaren diplomazia murgiltzearen mesedetan **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

INDARKERIA ZIBERNETIKOA:
3D antiojoak kendu ordeztan,
betaurreko moreak jantziz **> 18**



2022ko uztailaren 2a | XVI. urtea • 780. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



MAZUNTE, DORTOKAK ETA TURISMOA; IRTENBIDEA ARAZO BIHURTZEN DENEAN



Mazunte, dortokak eta turismoa
Mexikon: irtenbidea arazo
bilakatzen denean 04

Eleuterio Goikoetxea omenduko
dute Zeanurin, Gorbeiako
aterpearen mendeurrenean 10

Pantaila txikian: Oporretan
ikusteko telesail laburrak (I) 13

Indarkeria birtuala: Metabertsoan
matxismoa geldiarazteko
betaurreko moreak jantziz 18

Juantxo Egaña, Behatxulotik:
Iturralde, Atxaga eta Sarrionandia
Martuteneko espetxean 23



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Burubeltzaren diplomazia
murgiltzearen mesedetan
- 07 **Unai Gaztelumendi**
- 08 **Saioa Aginako Lamarain:**
Lokarri ikusezina
- 09 **Iñaki Altuna:** Ezker abertzalea
arbuizatzea du helburu GKS
- 16 **Itziar Elizondo:** Denok
neskame
- 17 **Mijo Lizarزابuru:** Euskal
Herriko unibertsitate publiko-
pribatua
- 21 **Miren Azkarate Badiola:** Har
ezazu(e) muxu bana
- 21 **Antton Izagirre:**
Suak erre ez dituenak
- 22 **Ainhua Yera Gil:** Adimen
artifizialak giza lanak
ordezkatuko ote ditu?



{ datorrena } Maite Ubiria Beaumont

Burubeltzaren diplomazia murgiltzearen mesedetan

Panda Hartzaren diplomazia baliaturik, indarra esplizituki erabili beharrean milaka urteko ibilbideak ematen duen hatsari eta eskarmentuari jarraipena emanez, bere posizioa sendotzera jotzen du etengabe Txinak. Isiluneen bitartez mintzatuz batzuetan, aurkaria isilik gelditzeko moduko erronkak finkatuz bestetan, maitekiro begiratzen dugun hartztzoxa ikur gisa duela globalizazioaren partitura barneratu eta bere baitatik sorturiko erritmoarekin jotzen du Pekinek.

Txina bilakatu da bai G7 taldeak Munichen bai NATO erakunde militarrek Madrilen berriki egin dituzten goi bileretako «harrizko gonbidatua». Mendebaldeko antolakunde ekonomiko-militarrek badute arerio ofiziala. Planeta eta gizakiaren biziraupena arriskuan jartzen duen sistema kapitalista eta demokrazia txanponaren alde bi gisara ulertzen dituzten agintariek datorren hamarkadan garatuko duten defentsa eredu oldarkorra eman dute plantan.

Danbor hotsez girotutako partitura atrilean jarri eta kontzertuari hasiera eman diote, orkestrako musikari bakarrak balira bezala, munduan beste musika jotzaile-rik ez balitz bezala.

Finean, mila milioitik gora biztanle dituen Txina eta iruditegi ofizialak bere itzalpean jartzen duen 17.100.000 kilometro karratuko lurraldea gobernatzen duen Errusia «mendebaldarren» gaitz guztien errudun bezala aurkeztuz krisi batetik bestera jauzi eginez beren populazioa amildegiaren ertzean bizitzera kondentatzen duten AEBek eta beren *follower*-ek kanpoko etsaiaren doktrina arramoldatu dute, Gerra Hotzaren eskemak berotegi efektuaren garaietarako baliagarri direlakoan.

Anartean, Pandaren diplomazia urrutitik –baita sistemaren tripetatik kuxkuxean ere– mundu bipolarren alegoria interpretatzeko saiakera zalapartatsuari begira dago. Isiltasunez, presak agindutako urrats baldarra es-

tropezu noiz bilakatuko den zain. Pandak banbu hostoak murtzikatzen dituen gisara, indartsuago ateratzeko xedez estrategia birsortzeko ariketa dastatuz.

Bestalde, Europako mapa politikotik gero eta gehiago urruntzera bultzatu nahi duten Hartz Arrearen herrialdea dago. Ukrainan eman duen atzaparkada mingarriak taulategian utziko duen urraduraren benetako sakontasuna neurtzeko denbora beharko da. Praktikotasunak zuhurtziaz jotzea eskatuko luke. Ez da hala izanen. Udako epeltasunean udazkenetik aurrera nekezak bilakatu daitezkeen hautuak tarrapatan hartu dituzte.

Etxera bueltan, txiribuelta bat eginez, iaz ezinezko ziren hautuak zentzuzko erabaki gisara aurkeztu berri ditu Bordeleko Akademiak. Hiru herritan martxan emandako borrokak Ipar Euskal Herriko erakundeek eta

200 biztanle eskas ditu Larrainek, 600 inguru Barkoxek eta Irisarrin mila herritar baino gutxiago bizi dira. Herriko eskolak bizirauteko lehian euskara hartu dute aliatu gisa eta lehen garaipena lortu dute

horiek baino askoz lehenagotik ere gizarte antolatuak euskarazko murgiltze ereduaren alde abian emandako ofentsiba eraginkorraren baitan uztartu dira. Are, Irisarrin, Barkoxen eta Larrainen garatutako Ardi Burubeltzaren diplomaziak behin-behineko emaitza utzi du.

Manexentzat azalpena: burubeltza elikagaien industriak agintzen dituen ekoizpen eskemetan jarduteko ez da ardi arraza egokia. Esne kopuru «gutxi» ematen du. Alta, urte osoan ematen du esnea, bortua luzaroan baliatzen duelako. Temati samar, moldatzeko gaitasuna badu, iduriz, eta artzainen esanetan ahultasunetatik abantailak ateratzeko gai izanen da. Hurrengo etapa irabazteko abian den euskararen tropelarentzat ikur aparta. •

MAZUNTE, DORTOKAK ETA TURISMOA: IRTENBIDEA ARAZO BILAKATZEN DENEAN

Beñat Zaldua

Munduan zortzi itsas dortoka mota daude, eta horietatik zazpi, Mexikoko hondartzetara iristen dira arrautzak errutera. Duela 40 bat urte bertan jaiotako dortoka olibakara bati ez zaio bizitza luzea geratzen. Bere bizi itxaropena agortzen ari den honetan atzera begiratuko balu, ordea, kostatuko litzaioke bizitza batean hainbeste aldaketa kabitzen direla onartzea.

8oko hamarkadan, ehizak dortoken populazioa mugara eraman zuen Mexikon. Kostaldeko komunitateetan, dortoken –eta batik bat, arrautzen– kontsumoa ohitura tradizionala zen, eta leku batzuetan oraindik ere bada, baina ez da hori dortokak arriskuan jarri zituen. Esportazioa jomuga zuen ehizak eraman zituen kinka larrira narasti hauek; estatu espainola eta Italia ziren, neurri handi batean, helmuga. Krokodiloen ehiza mugatzen hasi zen heinean hasi zen dortokena. Altxor preziatuenak azala eta oskolak ziren arren, dortoka espezie desberdinak gauza desberdinetarako erabiltzen ziren; esate baterako, karei bezala ezagutzen da oraindik betaurreko armazoiaren kolore jakin bat, izen hori daukan dortokarekin egiten zirelako bere garaian.

1990ean Mexikok dortoken ehiza debekatu zuen, eta horrekin batera, proiektu batzuk abiatu zituen, ehizatik bizi ziren komunitateei beste diru sarrera batzuk bermatzeko. Apustua ekoturismoa delakoa izan zen; gutxi imajinatzen zuten, ordea, orduko irtenbideak sortuko zituela egungo arazoak.

MAZUNTE, EPIZENTROA

Plan hori Mexikoko leku desberdinetan garatu zen, baina Mazunten izan



zuen epizentroa. Orduan 500 bat bizi-lagun zituen herrixka arrantzale txikia mapetara iritsi zen, han erabaki baitzuten ezartzea Mexikoko Dortoken Zentroa. Arrazoia bikoitza izan zen, zentroko Turismo eta Hezkuntza koordinatzaile den Mireya Viadiuren arabera: batetik, dagoeneko turismo gune garrantzitsuak ziren Puerto Escondido eta Huatulcoren artean gertatzen da herria; bestetik, bertan zegoen, San Agustinillon, dortoken merkatu handiena. 1990eko debekuak gogor kolpatu zuen herria, eta alternatibaren bat abian jarri behar zen.

Gaur egun itxura apur bat zaharkitua eta neurri batean dekadentea erakusten ditu oraindik Dortoken Zentroak, mexikarrak batik bat. Guanacaste zuhaitz handien itzalpean, hamaika dortoka mota daude ikusgai, bai berta-

90eko hamarkadan Mexikok dortoken ehiza debekatu zuen. Ehizatik bizi zirenei beste diru sarrera batzuk bermatzeko bide desberdinak abiatu ziren, horien artean ekoturismoarena. Irudian, turista taldea ilunabar eder bati begira.

B. ZALDUA

koak, bai kanpokoak. Lan nagusia, ordea, ez dute bisitariekin egiten, dortokekin baizik, eta arrakasta handiarekin. Dortokak babesteko planei esker, duela 25 urte arriskuan zeuden espezie ugariaren populazioak gora egin du.

Baina ezer ez da erraza izan beti baliabide urriak izan dituen zentro honetan. Agian patuak bere oharra utzi zuen inaugurazio egunean. Carlos Salinas de Gortari presidentea iritsi behar zen eraikin berria estreinatzerako, baina 1994ko martxoaren 23 hartan Luis Donaldo Colosio Murrieta hil zuten Tijuana. Salinas de Gortariren lekukoa hartzeko hautagai ofiziala zen Colosio, diskurtso subiranista eta neurri batean ezkertiarago batekin. Hilketaren inoiz argitu izan ez den arren, PRI alderdi barruko barne liskarrei egotzi zaie beti. Edonola, orduko presidenteari eguna korapilatu zitzaion, eta Mazunteko

zentroak inaugurazio ofizialik gabe ireki zituen ateak.

NON DAUDE ZUHAITZAK?


Asko aldatu dira gauzak ordutik, baina dortoken populazioak gora egin duen arren, arriskuan jarraitzen dute narrasti hauek. Hori bai, mehatxuak desberdinak dira. Nagusia zein den galdetuta, Viadiuk ez du zalantza izpirik erakusten: «Niretzat, turismo eredu hau». Zentroa martxan jarri eta bi urtera iritsi zen bera zentrora, duela 26 urte. Dioenez, garai hartan, Mazuntetik Puerto Escondidora doan errepidetik ez zen itsasoa ikusten ia helmugara iritsi arte. «Gaur egun bide guztian ikusten da itsasoa, lursail guztiak zatitu dituzte, saldu dira edo salgai daude, eta zuhaitzak moztu dituzte», azaldu du. Boom handiak 2015. urtearen inguruan egin zuen eztanda, Mazunte Mexikoko «Pueblo mágico» izendatu zutenean.

Ez da bakarrik Viadiuren iritzia. Mexikoko gune natural babestuak kudeatzen dituen erakunde federalak (Conanp, gazteleraz) ere horrela jasotzen du bere dokumentuetan, turismoa zuzenean aipatzen ez duen arren. Hauxe dio, adibidez, hasieran aipatutako dortoka olibakarari buruz: «Mehatxu nagusien artean habia egiteko hondartzen eta kostako ingurumenaren degradazioa dago, giza jardueraren eragotzeak eraginda». Ehizaren aurretik agertzen da beti arazo hau.

HAU EZ DA MEXIKO

Baina nolakoa da Mazunte? Oaxakako hegoaldean kokatutako herria da; badia, lurmutur eta hondartza txiki eta luzez harilkatutako kostalde eder batean iltzatuta dago. Ozeano Bareak gogor jotzen du maiz, baina Rinconcito bezalako hondartzetan beti topatu daiteke bainu epel bat hartzeko aukera. Surflariak ere ez dira aspertzen ingurunean. Ilunabarrak paregabeak dira Punta Cometatik. Leku oso ederra da.

Puerto Escondido eta Huatulco lotzen dituen autobidetik atera eta segituan Mazuntera iristean, ordea, azkar antzematen da ez dela ohiko gune turistikoa. Ez dago hotel handirik, as-



faltoa hiruzpalau kalera baino ez da iritsi, eta jendea oinutsik eta kamiseta gabe dabil kalean, dendetan eta jatetxeetan. Utopia hippy bat begi aurrean zabaltzen dela dirudi, lehen kolpe batean. Hau al zen ekoturismoa?

Ezta halakorik ere. Mazunte ez da komuna bat, europarrez eta estatubatuarrez betetako burbuila baten antz handiagoa dauka. Badaude mexikarrak, jakina, baina gehienak lanean daude, eta hondartzara iristen direnek kamiseta ez dute bainatzeko ere kentzen. Ez da bertako ohiturak jarraitzen dituen eredu bat, munduko toki galduean zaudela irudikatzen duen eszenatoki bat da, akaso, jatetxe japoniarrez, teteria arabiarrez eta masaje thailandiar zerbitzuez hornitutakoa. Mexikon gauden, baina Polinesiar egon gintezkeen. Apartamentu eta ostatu gehienek eskaintzen dute dagoeneko aire egokitua, eta gero eta gehiagok daukate igerilekua. Han eta hemen topatu daitezke eraikuntza berrien obrak.

Pareta batean, tupustean, Pepe Mugica uruguaitarraren argazkiak ibiltariaren arreta bereganatzen du. Zer ote? «Zaintzaren profesionala bazara, edo ongizatearen negozio bat badaukazu, zure kontsulta betea nahi baduzu, benetako oparotasuna eta askatasuna nahi badituzu, negozio ausart eta errentagarri bat nahi baduzu, oiloak zaintzen zituen presidente batengandik ikasi nuena interesatzen zaizu». Testu horrekin iragartzen zen, Mugica gaixoaren aurpegiarekin batera, *copywriting* ikastaroa eta konstelazio familiarrak pakete berean saltzen zituen jardunaldia. QR kodearen bidez webgune batera iritsi eta bertan, amu bezala, honakoa: «Norbanakoaren bidea hautatu baduzu, basakeriaren aurrean, hau interesatzen zaizu». Mazunte honen, eta munduan dauden beste hamaika Mazunteren deskribapen psikodelikoaren aurrean ez ote gauden.

TURISMOA BAKARRIK BALITZ


Dortoken begiradapean, Mireya Viadiuk «jendea nora datorren jakitearen garrantzia» azpimarratzen du. «Hemen jendeak ez dauka aire egokiturik,

ezta igerilekurik ere, ozeano bat dauka parean, baina turista bere esperientzia bizitzera dator, moto bat alokatu nahi du, eta igerilekua eta aire egokitua nahi ditu», azaldu du. «Jendeak uste du dortokak ez jatearekin nahikoa dela hau zaintzeko, baina turista bezala uzten duzun arrastoan ere pentsatu behar da: zenbat ur kontsumitzen duzun, zer egiten duzun zure hondakinekin, eta abar», gehitu du.

Viadiuren arabera, «ekologismo kontzeptu nahiko nahasia» gailentzen da askotan. «Plastikozko tutu batek sudurra zauritutako dortoka baten bideoa birala egin zen Mexikon, kanpaina itzela egin zen, eta plastikozko tutuak debekatu zituzten. Orain hamaika materialeko tutuak ditugu, baina inork ez zion bere buruari galdetu benetan tutuak ezinbesteko produktu bat diren», jarri du adibide gisa.

Aldi baterako hippy gringo eta europarrak ez dira, edonola ere, mehatxu bakarra. Larrialdi klimatikoa ere iritsi da hona, beste edonora bezala. Mazunteri buruz ari gara, baina munduko edozein gune turistikori buruz ari gitezke; dortokei buruz dihardugu, baina arriskuan dagoen edozein animalari buruz hitz egin dezakegu. Turismoak ez du Mazunten formula berezirik, mundu guztian hedatuta dagoen eredu jakin baten bertsio sasihippya da, etengabeko hazkundea behar duen sistema batek eta energia iturri merkeak izan dituen garai batek sortutakoa.

Konjuntzio horren atzean dago, neurri handi batean, larrialdi klimatikoaren funtsa ere. Lehen, dortokak maiztza eta ekaina artean hasten ziren



Turismoa eta klima larrialdia mehatxu garrantzitsuak bihurtu dira Mazunterentzat eta bertan bizi diren espezieentzat.
B. ZALDUA

hondartzetara iristen habia egitera, abendura edo urtarrilera arte iraun zezakeen prozesu batean. Orain, ordea, Viadiuk azaldu duenaren arabera, apiril beroan izan ezik, edozein hilabetetan iristen dira. Aldaketa nabarmena izan da.

Temperaturen igoeraren arriskuak argigarriagoak dira. «28 gradu egiten dituenean, %50eko aukera dago arrautza batetik dortoka eme bat ateratzeko, eta beste hainbeste harra izateko. Temperatura langa horretatik igotzen denean, eme ateratzeko aukera handitzen doa. Eta alderantziz temperatura baxuagoe-kin», azaldu du Viadiuk. «Jakina alda-

keta klimatikoak hemen ere eragiten duela», azpimarratu du.

Dortoken populazioa mehatxatuta egoteak bertako oreka ekologikoa arriskuan jartzen du, gainera. Adibide bat jarri du Viadiuk: «Dortoka berdeari 'lo-rezaina' esaten zaio hemen, algak jaten dituelako, eta arrezifeari lekua uzten diolako. Arrezifeak, era berean, funtzio ekologiko asko ditu, eta arriskuan dago. Dortoka berdearen lana ez da edonolakoa».

«Turismoak eta larrialdi klimatikoak dortoka populazio hauek kolapsora eramán ahal ditu, baina baita egokitzapenera ere. Iaioak dira horretan lagun hauek, hemen zeuden jada dino-sauroen garaian, denbora asko daramate egokitzeko eta bizirauteko entrenatzen», dio Viadiuk. 26 urtetan Mazunten ikusi duenak zalantzak sorrarazten dizkio, ordea, gizakion aukeren inguruan: «Gehiago kezkatzen nau gure egoerak, egokitzapen gaitasuna galdu dugu, ezin dugu beroarekin, ezin dugu eltxoekin, igerilekuak nahi ditugu itsasoaren aurrean... halakoa da behintzat Mazuntera iristen den turismoa».

«Jendeak uste du dortokak ez jatearekin nahikoa dela hau zaintzeko, baina turista bezala uzten duzun arrastoan ere pentsatu behar da: zenbat ur kontsumitzen duzun, zer egiten duzun zure hondakinekin, eta abar»

Larrialdi klimatikoa ere iritsi da. Lehen, dortokak maiztza eta ekaina artean hasten ziren hondartzetara iristen habia egitera, abendu edo urtarrilera bitartean. Orain, apiril beroan izan ezik, edozein hilabetetan iristen dira



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA: {



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Lokarri ikusezina

Adiskidetasuna besteekin lotzen gaituen lokarri ikusezin hori da. Gure bidean gurutzatzen diren eta gure bizitzan ezinbesteko izaki bihurtzen diren pertsonekin sortzen den afektuzko lotura. Berdinen arteko harremana da, esperientziak partekatzeko, seguru sentitzeko eta norbaitengan konfiantza izateko poza ematen diguna. Adiskidetasuna pixkanaka eraikitzen da, esfortzu eta dedikazioaren bidez. Denborak aurrera egin ahala, harreman horrek lotura sendoa sortzen du, denboran irauteko eta luzatzeko gai dena. Adiskidetasuna enpatian oinarritzen da, hau da, beste pertsonaren larruan jartzeko eta ulertzeko gaitasunean.

Gure izaera sozialak sortzen digu beste pertsona batzuekin harremanak eta loturak ezartzeko premia. Adiskidetasuna, beraz, garrantzitsua da pertsona baten bizitzan, maila emozionalari ekartzen dion onuragatik. Gainera, lagunek geure buruaren hainbat alderdi ezagutzeko eta garatzeko aukera ematen digute. Autoestimua osasungarria izaten laguntzen digute eta egonkortasun psikologiko handiagoa ahalbidetzen duten emozio positiboak eragiten dituzte. Esan genezake, beraz, adiskidetasunak nolabait babestu, zaindu eta indartu egiten gaituela. Gure sekretuak, gure kezkak eta gure proiektuak konpartitzen dizkiegu. Haiengana jotzen dugu gure pozen berri ematera ere.

Adiskidetasunari ematen diogun garrantzia etengabe mantentzen da bizitzan zehar, baina etapa bakoitzean era batera edo bestera agertzen da. Haurrak garenean beste haur batzuekin harremanetan jartzen gara pixkanaka geu-

re indibidualtasunaren kontzientzia garatzeko, jolasaren bidez gure gaitasun emozionalak, kognitiboak eta sozialak martxan jartzeko. Hogei urterekin, munduaz dugun ikuspegian aberasten gaituzten askotariko pertsonekin erlazionatzen gara, eta horrek eragina du gure nortasunean eta espektatiben zabaltasunean. Hogeita hamar urterekin, ordea, sozialki nekatuta gaude beste pertsona batzuk entretenitzeko, eta nahiago dugu kalitatea gure harremanetan, eta urteetan ikasitako guztia ongizaterako erabiltzea. Hirugarren adinean adiskidetasuna ezinbesteko zutabea da pertsonaren ongizaterako. Giza bizitzaren etapa horretan, gizarte loturak erabakigarriak dira oraindik; izan ere, nerabezaroko urteetan bezain beharrezkoak izan daitezke.

Egia da ez dela erraza inguratzen gaituen jendearekiko

hurbiltasun psikologiko egokia lortzea, askotan etsipenak bakardadea hobesten baitu. Hala ere, bakardade hori isolamendu bihurtzen ez den bitartean, gure osasunak ez du zertan kalterik jasan. Beraz, gure adiskidetasun harremanen kalitatea eta maiztasuna funtsezkoak dira batzuetan astintzen gaituen ondoeza eta larritasuna murrizteko.

Adiskidetasuna ez da edonorengan aurkitzen. Jende asko etorri eta joaten da. Baina batzuetan, gutxien pentsatutako unean, lotura hori sortzen da: zerbait berezia, garrantzitsua eta iraunkorra. Hori ez da askotan gertatzen bizitzan. Horregatik, ez ezaizu ziurtzat jo. Pazientziaz, zintotasunez, maitasunez eta arretaz zaindu ezazu. Pertsona garrantzitsuek gure bizitzak markatzen dituzte. •

saioaaginako@gmail.com



Adiskidetasuna garrantzitsua da pertsona baten bizitzan. Antonio GUILLEM | GETTY

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Ezker abertzalea arbuiaitzea du abiapuntu GKSk

GKSk eta beste antolakunde batzuek osatutako «Mugimendu Sozialistaren» oinarri nagusietako bat, nagusia ez bada, ezker abertzalearen «porrot historikoa» agerian uztea da, eta esplizituki Nazio Askapenerako Euskal Mugimenduaren paradigma osoki arbuiaitzea. Horixe azaltzen zuen joan den urrian Espainiako dibulgaziorako hedabide digital batean argitaratutako eta GKSk militanteekin izandako elkarrizketari esker egindako artikulua/analisiak. Artikulu hura GKSk kide ezagunek hauspotu zuten sare sozialetan. Hilabete honetan, ELAk bere «prentsa laburpena» buletinean jaso berri du. Beraz, esan daiteke ikuspuntu ezberdinetatik artikulua hura erreferentziazat hartu dutela askok GKSk zer den ezagutarazteko.

Testua irakurrita, ondoriozta daiteke ETaren esanetan Gernikako errautsen azpiko hausberotik sortu, Euskal Herriaren heriotza ekidin eta Euskal Errepublika eskuratzeko norabidea irudikatzen duen askapen mugimenduaren ukazioa dela proiektu berri horren abiapuntua.

Halere, fenomeno berria dela esatea, beharbada, gehiegitxo ere bada, antzekoak bota baitzituzten 70eko hamarkadan ETAn «espainolistak» eta «likidazionistak» izateagatik erakunde hartatik kanpo geratu ziren zenbait kide eta korrontek. Orduan ere haientzat ETakoak burges txikiak baino ez ziren. Ez da, horratik, honakoa eztabaida historiko bat, ezta garai bateko pentsaera eta gaurkoa konparatzeko ariketa bat ere. Aldeak ere oso nabariak dira.

Mugimendu Sozialistak sortzeko ezarritako aipatu printzipioak bere mezu eta praktika argiki norabidetu du. Alde batetik, ezker abertzalearen zikloa agortua dagoela nabarmentzeko ahaleginak eta bi egiten ari dira. Kategorikoak dira horretan; 60 urteko balantzetik, gaur egungo errealitatetik eta etorkizunean egitasmo independentistak eta abertzaletasunak izan dezaketen garapenetik oso bestelako irakurketak egin badaitezke ere. Nolanahi, kategorikoak behar dute izan, nahitaez;

esan bezala, bere jaiotza «porrot» horretan justifikatzen baitute neurri handi batean.

Beste alde batetik, abiapuntu horrek erasokor bilakatu ditu, ohikoa izanda ere oso zintzoa ez den maxima bati jarraituz: nik esaten dudana kritika politikoa da; niri esaten dizkidatenak, irainak. Horrela, sareetan maiz irakur daitekeenez, ETatik sortutako mugimendu politikoa Estatu espainoleko sistemaren partaide bilakatu da. Ez da makala baieztapena. Eta, jakina, «sozialdemokrazia» horri eraso egin behar zaio.

Horrenbestez, herri mugimendua sozialdemokraziaren «asmakizuna» bada eta, esate baterako, gaztetxeak kontrol proletariorik gabe «folklore» hutsa badira, argi dago zer egin behar duten egiazko komunistek, ezta?

Eskema osatzeko «kontrol proletarioa» kontzeptu hori indartu nahi izan dute, eta horrek bide ematen die

Kategorikoak behar dute izan, nahitaez; bere jaiotza ezker abertzalearen ustezko «porrot» horretan justifikatzen baitute neurri handi batean

beren jokabidea osoki justifikatzeko, nahiz eta jokabide horrek «matonismoa» praktikatzearen salaketak ugartu dituen azken hilabeteotan.

«Gerra» hitza ere aipatu izan du mugimendu berri horretako ahots garrantzitsuenetako batek, nahiz eta, azken kalapitek sortutako giroak behartuta-edo, eraso jasan duena beti mugimendu hori izan dela nabarmendu nahi izan duten azkenaldian.

Horrela etorri da kontua; zoritxarrez, eztabaida sako-nagoei behar bezala ekitea galaraziz. Nazio auzia lausotzeak emantzipazio prozesuari eragin diezaiokeen kalteak edo halako liskarretan euskal langileria zapaltzen duten bi estatuak ekuaziotik kanpo geratzeko kezka handiagoa sortu beharko lukete. Beste baterako utzi behar dugu hori dena. •

«ELEUTERIOREN TXABOLEA»

Zeanurik Eleuterio Goikoetxea omenduko du Egiriñaoko aterpearen mendeurrenean

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Arrabako larreen ondoan, Aldamin mendia-
ren magalpean eta Gorbeia-
ren tontorretik
hur, Egiriñaoko pagadia dago. Aspaldi erreparatu zion Eleuterio Goikoetxeak paraje haren ederrari. Bertatik gero eta jende gehiago igarotzen zela ere konturatu zen eta, duela ehun urte, Egiriñaoko aterpea zabaldu zuen, Euskal Herriko lehen mendi ostatua.

Datorren uztailaren gan ospatuko dute aterpe-ostatu haren mendeurrena. Ospakizunaren egitarauaren zatirik handiena Egiriñaon bertan egingo dute, aterpearen parean, 12.00etan hasita, baina goizeko 9.00etan Zeanuriko plazatik martxa gidatu bat abiatuko da Egiriñaora joateko. Nahi duten guztiek parte har dezakete ibilaldi horretan.

Mendeurrena ospatu eta haren sortzailea omentzeko ekitaldia Zeanuriko Udalak antolatatu du. Besteak beste, gaur egun aterpearen jabe diren hiru mendi taldeen ordezkariak ere parte hartuko dute ekitaldian: Arnotegi Mendi Taldeak, Bilbao Alpino Clubek eta Juventus S. D. elkarteak.

MENDI ATERPE BATEN HISTORIA

Eleuterio Goikoetxea zeanuriztarra mendiko turismoaren aitzindari dela esan daiteke. XX. mendearen hasieran indar handia hartu zuen mendizale-
tasunak, mendi elkarteek gero eta txango gehiago antolatzen zituzten, batez ere uda aldean, Euskal Herriko eta inguruko lekuetako mendietan zehar. Garai hartako zenbait idatzik, gainera, kirol horren onurak nabarmentzen zituzten, alderdi fisikoari eta psikikoari dagokienez.

Ehun urte dira Eleuterio Goikoetxea zeanuriztarrek Egiriñaoko (Gorbeia) aterpea inauguratu zuela. Datorren zapatuan, uztailak 9, gertaera hori gogoratu eta Goikoetxea omenduko du Zeanuriko Udalak. Gorbeia-
ren tontorretik hurbil, «Eleuterioren txabolea» Euskal Herriko lehen mendi ostatua izan zen.

Dirudienez, 1919an eraiki zuten Euskal Herriko lehen mendi aterpea Pagasarrin, egia esateko hura beste ezer baino gehiago askaldegia bazen ere. 1922ko uztailean Egiriñaon inauguratu zutena, berriz, benetako mendi ostatua zen. Gorbeia-
ko mendiguneak eta bereziki Gorbeia-
ganak erakarririk mendizale ugari Arratiako tranbia hartu eta Zeanuri nahiz Areatzara joaten zirela ikusita, Goikoetxeak diru apur bat irabazteko aukera sumatu

Egiriñaoko aterpe-
ostatu 1922an,
inauguratu berri.
INDALECIO OJANGUREN

zuen. Hartara, duela 100 urteko uztailaren gan zabaldu zuen Egiriñaoko mendi ostatua, 1.200 metroko altueran eta Gorbeia-
ko gurutzetik hurbil. Handik igaroko ziren Pagomakurretik Arraban zehar igotzen ziren mendizaleak. Handik igarotzen dira gaur egun ere.

Oso ezaguna da Euskal Mendizale Federazioa 1926an argitaratzen hasi zen “Pyrenaica” aldizkaria. Lehenengo alean Egiriñaoko mendi aterpearen berri ematen zuen iragarki bat

zegoen, honako testu hau zeukana: «Refugio alpino del Gorbea (1.200 m.) (pensionado completo). Primera hostería-alpina en la Región Vasca. Dormitorios generales, literas sueltas y habitaciones separadas. Considerables rebajas en concurrencias numerosas. Domingos y festivos, misa en la gruta anexa. Pídanse catálogos: Propietario, Eleuterio Goicoechea. Ceanuri (Vizcaya)».

Mende hasiera hartan Gorbeia-
ko paraje ederrak ikustera joaten zen jende asko gizarte-
ko «goi mailakoa» zen, halako ahalmen ekonomikoa zuena, alegia. Gorbeian egun bat baino gehiago igarotzeko aukera eskaintzen zion Goikoetxearen aterpeak; babesa, janaria eta ohea. Jose P. de Duñabeitia y Menchaca Mendi Federazio-
ko lehen bazkideak honela zioen 1926an: «Gaur egun, Egiriñaoko aterpe-ostatuari esker, Gorbeian egun batzuk igarotzea oso atsegina eta erosoa da, janaria eroateaz eta gaua



GORBEA (VIZCAYA).—CASA-REFUGIO PARA ALPINISTAS A 1500 METROS, RECIENTEMENTE INAUGURADA. (FOT. OJANGUREN)

pasatzeko lehorpea bilatzeaz ez zara arduratu behar eta».

1924an aterpe-ostatua berriztatu eta handitu egin zuen Goikoetxeak. Haren itxura Antonio Ferrerrek azaldu zuen 1927an argitaratu zuen “Nuestras Montañas” liburuan: «Aterpeak gurutze itxura du eta honako zerbitzuak eskaintzen ditu: 16 ohe mendizaleentzat eta beste lau Diputaziokontzat, jantokia, suitea eta beheko sua; hodi baten bitartez Lekuotzeko iturritik ekarritako ur edangarria edukitzeaz gain, dutxatzeko gela bat ere badauka, komun eta konketa-rekin».

KARTZELA ETA ATERPE ZATITUA

1936ko gerran aterpea kaltetu egin zen eta, are okerrago, Eleuterio kartzelara sartu zuten. Kartzelatik irtendakoan, deserriratu egin zuten. Herri-tik kanpo izan zen zazpi urteetan haren emazte Gillerma Uriarte eta seme-alabak arduratu ziren aterpeaz.

1942an Espainiako Mendi Federazioko Euskal Ordezkaritzak aterpearen atal bi erosi zizkion Goikoetxeari 10.000 pezetan, eta hurrengo urteko uztailaren 11n inauguratu zuen atal bi horiek berriztatuta zeuzkan aterpea. Goikoetxeak eta bere familiak beste atala kudeatzen jarraitu zuten 1956 arte. Urte hartan hil zen Eleuterio Goikoetxea, maiatzaren 1ean, eta 1957an haren familiak Bilbao Alpino Clubi saldu zion bere jabetzapean zuen atala. Salmenta eskriturak Gillerma alargunak eta Begoñe alabak sinatu zituzten.

Urte berean, Mendi Federazioak bere bi atalak salgai jarri zituen, baita saldu ere, bat Juventus S.D. elkarteari eta beste Iberduero Lan Taldeko Mendi Elkarteari.



35 urtean «Eleuterioren txabolea» izan zenak Egiriñaon jarraitzen du gaur egun, hiru ataletan banatuta, eta Arnote-gi Mendi Taldea, Bilbao Alpino Club eta Juventus S. D. elkartea dira zati banaren jabeak.

Aterpe-ostatutik hur baseliza txiki bat ere eraiki zuen Goikoetxeak, Elurretako Amarena, udako igandeetan eta jaiegunetan artzainek eta bisitariek meza entzuteko aukera izan zezaten.

ZEANURIN ERE OSPETSUA

Eleuterio Goikoetxearen aterpe-ostatuak ospe handia izan zuen mendizaleen artean, baina baita inguruko herrietan ere, batez ere Zeanurin, Goiko-

Lerroon gainean, Egiriñaoko aterpea gaur egun; eskuinean, Elurretako Amaren baselizatxoa, aterpearen aldamenean.
MIKEL MANTEROLA - GOIKOETXEA FAMILIA



etxearen herrian, hain zuzen. Hantxe ipini zioten «Eleuterioren txabolea» izena. Ospe horren erakusgarri, lagunek parranda giroan abesten zizkioten bertsoak, oraindik Zeanurin oso ezagunak, “Joxe Migelen batela” kantu herrikoi ezagunaren doinuan intonatzan dituztenak:

*Eleuterioren txabolan
gosea franko izango da,*

*baita bere egarrie
dalako gizon baragarrie.
Eleuterio, Eleuterio,
Eleuterio, Eleuterioren txabolan.
Zeanuritik baraurik
urtetan badozu,
Gorbeiera orduko
damutuko jatzu.
Damutuko jatzu te
damutuko jatzu,
Zeanuritik baraurik
urtetan badozu.*

**Uztailaren gan zabaldu zuen Goikoetxeak
Egiriñaoko mendi ostatua, 1.200 metroko
altueran eta Gorbeiaiko gurutzetik hurbil. Handik
igaroko ziren Pagomakurretik igotzen zirenak**

Eleuterio Goikoetxea bere emazte Gillerma Uriarterekin eta familiako beste kide batzuekin.
FELIPE MANTEROLA



ELEUTERIO GOIKOETXEA, ZEANURIKO ALKATE ETA MENDIKO OSTALARIA

Eleuterio Goikoetxea Goikuria Zeanurin jaio zen 1888ko urriaren 1ean Zubiarte izeneko etxean. Etxe hura Rotaetxe familiaren jabetza zen eta Eleuterioren aita, Felipe Goikoetxea, familia haren administratzailea izan zen. Aitaren ardura hori hartu zuen gero Eleuteriok. Eraikuntzan eta finka tasatzaile moduan ere lan egiten zuen eta, hala berean, Bilboko portuko obra batzordeko enplegatua izan zen. Auzokideen artean pertsona errespetatua zen, eta sarritan gatazketan arbitraje edo bitartekari lanak egiteko deitzen zioten.

1915eko urtarrilaren 23an Guillerma Uriarterekin ezkondu zen eta hamar seme-alaba izan zituzten: Andoni, Iñaki, Karmele, Mikel, Arantza, Elisabete, Begoña, Jon Aingeru eta jaio berritan hil ziren beste bi.

Kultura munduan jarduna, Zeanuriko Dantzariak taldeko

ordezkari izan zen. Baita Zeanuriko Junta de Acción Católicako idazkari ere, oso fededuna zen eta. Horregatik, ez da harrigarria 1922an Egiriñaon Euskal Herriko lehen mendiko aterpe-ostatua zabaldu zuen gizonak eduki zuen kezka: Arrabako zelaietako baseliza jausi ostean, artzainek eta bisitariek meza entzuteko aukera edukitzea. Kezka hura zela eta, aterpetik hurbil, Egiriñaoko hormetan, mazela arrokatu hartan sartuta, kanoi-ganga moduko eraikin txikia egin zuen, Elurretako Amaren baseliza. Eraikin horrek 3 x 2,25 metro ditu eta sarrerako atea inguratzen duen burdinazko hesi txiki batez itxita dago. Barruan, Gasteizko Udalak berrogeiko hamarkadan emandako irudia dago, eta gaur egun ere San Inazio egunean meza ematen dute Gorbeaiako mendizaleen eta artzainen omenez.

Abertzalea ere bazen Goikoetxea, EAJko kidea, eta 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan boto gehien hartu zituen hautagaia izanda, Zeanuriko alkate izendatu zuten. Udalbatza osatzen zuten hainbat ideologiatako hamar zinegotzietatik bederatzik haren aldeko botoa eman zuten eta batek boto zuria eman zuen. Hartara, II. Errepublikako lehen alkatea izan zen Zeanurin.

1936ko gerran faxistek atxilotu eta Larrinagako espetxean kartzelatu zuten. Hiru urte eman zituen han. Kartzelatik irtendakoan, deserriratu egin zuten eta Oñan (Burgos) egon zen. Guztira, zazpi urte eman zituen herritik kanpo.

Frankistek Zeanuriko Udaletik Gobernu Zibileko Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialera bidali zuten txostenean honelako datuak eman

zituzten Goikoetxearen gainean: «(...) durante el alzamiento desempeñó la alcaldía de Ceánuri y el cargo de Presidente del llamado Comité de Defensa que llevaba anejo el de Jefe de Orden Público. Fue separatista siempre y director de esta tendencia en su pueblo y por ello bien visto y consideradísimo en las altas esferas antiespañolas. La solvencia económica del mismo conocida consiste en la propiedad de una especie de Hotel de verano llamada refugio sito en el monte Gorbea que se estima unas 5.000 pesetas y otras 20.000 que se le suponen en metálico y esto aparte de los rendimientos que le dieran sus cargos de administrador de todos los Rotaeches y su empleo de la Junta de obras del Puerto de Bilbao».

Eleuterio Goikoetxea 1956ko maiatzaren 1ean hil zen, 68 urte zituela, bihotzekoak jota.



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Oporretan ikusteko telesail laburrak (I)

Dopesick

DISNEY+ / 8 ATAL

Telefilm kutsua zuen produktu hutsala ikusi behar nuela uste nuen baina erabat harritu nau Hulu-ren proposamen honek. Ameriketako Estatu Batuetan opioideen mendekotasunaren aurkako borrokaren epizentroa eramaten gaituen minisaila da, arazoaren fokua geruza desberdinen bitartez azaltzen duelarik; medikamentuaren sortzaileak eta enpresa erraldoiak, -farmazeutikoak alegia-, komertzialak, medikuak eta jakina, pazienteak. Aktoreen artean, ezagunak egingo zaizkizun izen ugari: Michael Keaton, Peter Sarsgaard, Rosario Dawson edo Michael Stuhlbarg, besteak beste. 1996 eta 2005 arteko denbora lerroaren bidez, konpainiari mesede egingen dioten marketin kanpainak nola sortzen diren ikusiko duzu, nola eta zergatik jaso zuen FDAREN -Food and Drug Administration, Elikagai eta Senda-

Oporrak hastear edo jada hasita izango dituzue zuetarikok. Autobusa, hegazkina, autoa edo trena hartzeko prest? Bertan ordu dezente igaro behar dituzue eta, entretenitzeko zer egin dezakezuen buruari bueltaka ariko zarete. Askok, liburua aukeratuko duzue, jakina, baina beste batzuek nahiago izaten duzue telesaila jo. Baliteke bidaia luzerik egin behar ez izatea, baina oporrak igaro behar dituzuen kokaleku horretan, afalostean, lasai-lasai ikusteko zerbaiten bila ariko zarete agian. Ez duzue telesail luzerik nahi, denbora tarte horretan hasi eta amaitzeko moduko zerbait izan dadila, ezta? Udako opor egun guztietarako gomendio sorta zabala izango denez, lehen zatia izango da honakoa, bigarrena hamabost egun barru.

gaien Administrazioa- tratamendu berezia, nola erortzen diren pazienteak beren sareetan, nola baliatu zen merkatua biktimez, eta hainbat estamentu ofizialek justizia egiteko duten borroka korapilatsua. Farmazeutikak herritarren gainbeherarekin aberastea ahalbidetu zuen sistemaren salaketa nabarmena da istorioaren muina eta zur eta lur geratu naiz apenas ezagutzen nuen beste pandemia saihegarri

hau ezagutu dudanean. Ezin bestekoa.

Mare of Easttown

HBO MAX / 7 ATAL

Telesaila premisa nahiko sinple eta konbentzional batetik abiatzen da, Pennsylvaniako Easttown izeneko herri txiki batean Erin McMenamin gaztearen gorpua agertzen da. Nork hil du? Zergatik? Mare Sheehan (Kate Winslet) polizia bertaratu da gertatutakoa argitzeko. Ama helduak, ama oso gazteak, ama bakartiak, sufritzen duten amak dira Easttown herri endogamikoan gertatzen den polizia drama indartsu honen protagonista nagusiak, eta Mare.

Poliziaren paperean Kate Winslet, sekulako erakustaldia eskaintzen. Telesail honek bere tonuagatik, protagonistagatik eta ustekabeko umore distirak oparitzen dizkigulako Happy Valley gogora ekartzen du hasiera batean. Baina ata-

lak igaro ahala, "Broadchurch", "True Detective", "Sharp Objects" edo zergatik ez "Twin Peaks"-en zantzuak ere antze-man ditut. Kate Winsleten lana eta bere pertsonaia aipatzeko idatzi propioa sortuko nuke. Ordu luzez hitz egin nezake hemen eskaintzen duen lana goraiatzeko. Azken hamarkadetako aktorerik onenetakoak pisu handia du telesaillean. Langile klasekoa da, AEBetako herri txiki galdu bateko polizia. Bere semearen suizidioak, familia kargak eta oraindik gainditu ez duen dibortzioak zauritu dute. Motxila zamatsu horrekin, herriko neska gazteen bahiketa eta hil-keta batzuei aurre egin beharko die. Harribitxia.

It's a Sin

HBO MAX / 5 ATAL


Ezezaguna zen beste pandemia latz bati buruzko telesail bikaina. Bere aurreko lanetan ("Years and Years", "A Very English Scandal", "Queer as Folk", besteak beste) Russell T. Davies gidolari eta sortzaileak frogatu zuen zer-nolako abilezia duen gizatasunez eta nortasun handiko pertsonaia berdingabez osaturiko istorio bizi eta entretenigarriak osatzeko. Baina baita ere, drama zein umorearen artean nabigatzen duen bitartean eta gizarte kritika intelignentea zabaltzeko duen behar hori erabiliz, hausnartzeko parada ematen duten ekoizpenak sortzeko duen trebetasuna. Hori guztia, gainera, minisail formatuan eta ireki eta ixten den istorio mami-tua jorratuz. Pet Shop Boys



talde mitikoaren izen bereko abestiari erreferentzia egiten dion “It’s a Sin” (Bekatua da) telesaila estreinatu berri du HBO plataforman. Oraingoan ere aurreko lanetan funtzionatzaren zuten tekla berak zanpatu eta telesail bikaina gauzatzea lortu du. Londres, 80ko hamarkada. Hirian elkar ezagutzen duten hiru gazte homosexualen istorioa kontatzen da, hiesaren eragilea den (GIB) giza immunoeskasiaren birusaren kalteak ezagutzen hasi den gizarte atzerakoi batean –“Gay minbizia” etiketa jarri zioten gaixotasunari, beraz pentsa-. Bost ataletan, 1981ean hasi eta hamar urtez luzatzen da fikzioa.

Hamarkada igaro ahala, eta hiesaren itzala gero eta gertuago sentituz, hazten eta heltzen ikusiko ditugu, inoiz baino indar gehiagoz eta maitasun irmoagoz bizitzeko helburuz. Beren sexualitatea aztertzea, aktore izatearen ametsa gauzatzea, lana lortzea eta noski dibertitzea, hamarkada liluragarri honen tesuinguruan. Desinformazioak, ezjakintasunak eta homosexualitatea oraindik begi onez ikusten ez zuen gizarte atzerakoi eta apur bat ozpinduaren atzaparrek ordea, bide hori maldatsua, bidegabea eta gogorra bilakatuko dute.

Lotsa da telesailak jorratzen duen beste elementu narratibo bat, eta azpimarratzekoa iruditzen zait. Hau Ritchie Tozer pertsonaiaren eta bere familiaren bitartez ikusten dugu bereziki. Pertsonaia guztiek protagonismo orekatua duten telesail koral bat den arren, nire ustez, pertsonaia horren istorioa baita argigarriena. Dibertigarria da, baina batez ere gogorra. Liluragarria eta aldi berean urratzailea. Russell T.



Daviesen obrarik pertsonalena dela esango nuke. Ikuslearen bihotzera zuzenean doan telesail paregabea. Ezezaguna zen beste pandemia latz bati buruzko kronika bikaina. Urtean zehar telesail gutxi ikusten dituen horietakoa bazara, hau da aukeratu behar duzunetako bat.

The White Lotus

HBO MAX / 6 ATAL

Inortxok ere ez –ezta HBO berak ere– espero ez zuen telesail arrakastatsua. Iraun zuen

sei asteetan sare sozialak ekoizpen honi buruzko txio, aipamen eta memez josi baitziren, bertan azaltzen diren pertsonaiak ia ikono bilakatzerraino. “Succession” zoragarrarekin gertatzen den moduan, pertsonaia jasanezinak eta gorrotagarriak, baina era berean maitagarriak. Umore beltzak gainezka egiten duen gidoi biribila eta elkarrizketa ironiko eta zorrotzez hornituriko trama oso entretenigarria. Astebetez, luxuzko resort tropikal batean erlaxatzeko intentziaz ari diren pertsona aberats jakin batzuen oporrak

erretratatzaren dituen telesaila da. Atalak igaro ahala ordea, guztia korapilatzen eta iluntzen joango da, azken traka apoteosiko batera iritsi arte. Osagarri horiekin guztiekin, modu satirikoan jorratzen dituzte gizarte klaseen arteko desberdintasunak eta horren erruz izaten dituzten identitate krisiak. Ikusi. Ez zara damutuko.

Under the Banner of Heaven

DISNEY + / 7 ATAL

Mormoi izenez ezagutzen direnak ofizialki Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Eliaren jarraitzaileak dira. Kristautasunaren aldaera bat da, eta bertako kideek kristautasunaren jatorrizko ideien gaurkotzea hartzen dute beren sinesmen eta erritutzat. Ez larritu, ez naiz hasiko mormoien jatorria azaltzen, gomendatu nahi dudana telesailarekin lotura duelako soilik aipatu dut sarrera labur hori. Andrew Garfield protagonista duen thriller hau benetako kasu batean oinarritzen da eta eliza mormoia tartean duen hilketa kasu konplexu bati heltzen dio. Garfieldek Jeb Pyre detektibea gorpuztuko du –mormoia bera ere–, 1984an Lafferty familian gertatu zen krimen basatia ikertzeko ardura duena. Kasu honetan, ikerketaren erdigunean, erruduna nor den baino, zergatik egin duen galdera kokatzen dute. “True Detective”-ren esentzia duen telesail hau –aldeak alde, jakina– ausardiaz murgiltzen da gai korapilatsu honetan eta aitortuko dizut barrenak nahasi dizkidala. Oharra: uztailaren 27an estreinatuko da.

Chloe

AMAZON / 6 ATAL

“The Tinder Swindler” dokumentalaren tankerako istorio ilun eta korapilatsua, baina Hitchcock-en garunetik sortua dirudien gidoi misteriotsu baten babesa duena; misterioz beteriko Instagram garaiko thriller psikologikoa. Alice Seabright-ek, “Sex Education” telesail leko gidoilari eta zuzendarietako batek, BBC katearentzat sorturiko telesail labur honek lehen segundotik harrapatuko zaitu. Sare sozia- lekin, eta bereziki bertan jarraitzen duen Chloe Fairbourne izeneko emakume batekin, itsutua bizi den Becky Green da kontakizun honen protagonista nagusia. Dementia goiztiarra duen bere ama zaintzen duen bitartean, Becky inbidiaz jarraitzen du Chloeren bizitza, bere errealtatea, mundu horretatik oso urrun kokatzen baita. Chloe ametssezko bizitza erakusten du sareetan; bikotea, etxe erraldoia eta lagun talde arrakastatsuz inguratua bizi da. Chloe bat-batean hiltzen denean, Becky nortasun faltua erabiliz, Chloeren gertuko lagunaren bizitza inbidia- garrietan sartzea erabakiko du, benetan zer gertatu zitzaion jakiteko.

Zaila da oso, hasiera batean behintzat, Becky Green protagonistaekin enpatizatzea; bere helburu zehatza zein den ez dugu ulertzen, burutzen dituen ekintzak zalantzarriak dira oso eta faltsukeriaz jokatzeko du une oro. Hasierak Netflixeko “You” gogorarazi didan arren, atalak igaro ahala, eta Becky Chloerekin duen konexioa apurka argitzen hasten denean, “Chloe” telesailak geruza gehiago dituela irudituko zait, sakontasun gehiago, per-

tsonaiak interesgarriagoak dira, eta beste norabide indartsuago bat hartzen du. Sei atalak bata bestearen atzetik irentsiko dituzu.

Time

MOVISTAR / 3 ATAL

Zer-nolako erakustaldia eskaintzen duten Sean Bean eta Stephen Graham aktoreek hiru atalez osaturiko telesail motz honetan. Kartzelako drama xumea, iluna, baina aldi berean hunkigarria. Britainia Handiko kartzela sistemaren erretratu gordina azaltzeaz gain, bizitzan hartutako erabaki txarrek amildegira eramandako pertsonen buruzko erradiografia zehatz bat ere erakusten du. Istorio honetako bi protagonista nagusiak legeraren alde banatan daude, baina biak etsaitasunezko ingurune batean bizirautea saiatzen dira. Sean Beanek erruak oinazetutako gizon bat gorpuzten du, Mark Cobden. Kartzelan sartu aurretik pertsona arrunta, aita eta irakaslea da. Bat-batean, bere bizitza goitik behera aldatu eta lau urteko zigorra bete beharko du. Beste aldean aldiz, Eric McNelly kokatzen da (Stephen Graham, izugarri, betiko moduan), presondegiko funtzionario bateranoa, hainbat preso talderen babesaz eta kudeaketaz arduratzen dena. Itxura zakarra duen arren, McNelly bere lana zintzo betetzen du eta presoek egunero behar duten horretan laguntzen saiatzen da. Abilezia txundigarriaz, Lewis Arnold zuzendariak eta Jimmy McGovern-en gidoi bikainak, bi pertsonaia horien barnean murgilduko gaituzte eta lehen segundotik lagunduko diegu beren infernu pertsonaletara



egiten duten bidaia horretan. Zuzendaritza lan paregabez, gidoi biribilez eta interpretazio bikainez bildutako istorio zuzena, bortitza, errealista eta oso gordina.

L’effondrement

FILMIN & DISNEY / 8 ATAL

Erakusten dituen irudiak, pandemia egoeran gaudenetik oso gertukoak eta ez hain arrotzak sentituko dituzu. Zortzi atal, bakoitza sekuentzia plano bakar batean filmatuta. Hasieran ezagutzen ez dugun gertaera konkretu batek gizartearen erabateko kolapsoa eragin du. Zortzi gertaera independente dira, kolapsoa eragin duen gertaeratik aurrera egun desberdinetan kokatutak. Bakoitza, denbora errealean filmatutako emozioen errusiar mendi bat da, non abentura, akzioa, drama eta larritasuna lehen pertsonan eta ekintzaren barnean egongo bazina bezala biziko dituzun, ia bideo joko batean

egongo bazina bezala. Aho zabalik utziko zaituen telesail larriak eta frenetikoa. Aparta. Teknikoki, azken urteetan ikusi dudana proposamenik berritzaileenetarikoa. Lehen minutuan lepotik heldu eta azken segundoraino askatzen ez zaituen ekoizpen zorbiagarria.

Les Parasites izeneko taldea osatzen duten hiru errealdoreen –Guillaume Desjardins, Jeremy Bernard eta Bastien Ughetto– lanari ez zaio meriturik falta, baina arrakastaren behin betiko bultzada bizi dugun pandemia bera izan da: 2019an filmatua izan arren, 2020an gertatutakoarekin antzekotasun handiak dauka, trama nagusian funtsezkoak bihurtzen diren antzekotasunak, hain zuzen.

Errealtateak telesailari lagundu badio, jariatzen duen errerealismoak bere arrakasta errematatzea lortu du. Kolapsoa, beldurra transmititzen duen istorioa da, erakusten duen gizartearen desintegrazioa guztiz sinesgarria delako.



Itziar Elizondo - @itziarelizondo
Harremanak Elkarte

Denok neskame

Ohartarazita geunden. Sinesgogorrenek ere behingoz onartuko dute fikzioak abisu eman zigula. Margaret Atwooden «Neskamearen

ipuina» hementxe bertan dugu, ate joka. Ez bakarrik paperean (Txalaparta, 2020, Zigor Garrok euskaratua) edo pantailarako bertsioan (Netflixen). Munduko lehen demokrazia deitzen dioten leku horretan pistolek emakumeek baino eskubide gehiago dituzte jada. Ameriketako Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak abortatzeko eskubide konstituzionala indargabetu du, eta sarritan bertan gertatzen dena erreferentea denez Mendebaldeko gizarteetan, atera kontuak.

Giza eskubideak hain dira ahulak, ezen eskubide horiek existitzeak gu guztion eguneroko konpromisoa eskatzen baitu. Ezer ez dago bermatuta, pribilegiatuen klubean bizi ez bazara behintzat. Ez baitu inork zalantzan jartzen Texas eta gainontzeko estatu kontserbadoreetan emakume gutxi batzuek diruak ematen dien askatasun osoa izango dutela beste nonbait abortatzeko.

Izan ere, klase pribilegiatuek edonon, han eta hemen, ez dute gainontzekoontzat hil edo bizikoak diren eskubideen horrenbesteko beharrik. Haiek, aldiz, eskubideak baino gehiago neurrira eraikitako sistema judiziala behar (eta lortzen) dute, delitu ekonomikoak egitea egokitzten zaienean kartzela zigorra saihesteko. Eskubideak baino gehiago neurrira eraikitako sistema fiskala behar (eta lortzen) dute, beren ondare eta etekin ekonomikoak estatu lapurtzaileak ken ez diezazkien denon zerbitzu publikoak iraunarazteko. Eskubideak baino gehiago neurrira

eraikitako sistema ekonomikoa behar (eta lortzen) dute, non finantza produktuen osasuna lan baldintzak baino garrantzitsuagoak den ekonomia-aren egoera neurtzeko.

Eta horrela dena.

Bere burua sozialdemokratatzat duten gobernuak ez dira kapaz izan irtenbide ezkertiarra emateko 2008tik jarraian izan diren krisialdiei, eta ematen du 2022ko denbora-espazio honetan kapitalismoaren zulo beltzak bere atzaparretan hartuko gaituela bertatik ihes egin ezinik. Aldaketa klimatikoa, gerrak, mota orotariko biolentziak (politikoa, ekonomikoa, kulturala, emakumeen eta LGTBI+ pertsonen kontrakoa...) eragindako injustiziak, faxismoaren

gorakada... Mehatxuen zerrenda luzea da.

Eta zuk, demagun, gizonezkoa izanik –klase ertainekoa, zuria, hipoteka eta urtean behin oporrak ordain dezakeenetakoa, seme-alabak sistema publikoan eskolatuak, Osakidetzan mediku euskaldun batek artatua eta euskaraz bizi denetakoa– uste baduzu emakume beltz eta pobre batek Louisianan legez abortatu ezin izateak ez duela eraginik zure bizitzan zure eskubideak urratzen ez dituelako... ondo jaioa zaude!

Giza eskubideen defentsan denok batera egon behar dugu, haien alde tokian tokikotik borrokatuz baina begirada globalarekin. Bestela, kontserbadurismo globalak denok egingo gaitu neskame. •



AEBetako Auzitegi Gorenaren erabakiaren aurkako protesta Washingtonen.

Tasos KATOPODIS | AFP

{ koaderno } Mijo Lizarzaburu

Euskal Herriko unibertsitate publiko-pribatua

EHU Euskal Herriko unibertsitate publikoko ikasleentzat ikasturtea bukatzeaz dago. eGelara azken lanak igo, EHU postako spama ezabatu (ez dadila kolapsa) eta G.A.U.R.-en urte osoko lanaren emaitzak ikusteko momentua da. Aurten, Filosofia-ko ikasleek behintzat, atzean utzi ditugu kalitatezko hezkuntza bermatu ezin zuten online klaseak. Baina, horrek plataforma digitalekiko dependentzia lausotu duen arren, argi dago baliabide digitalek XXI. mendeko hezkuntzan izango duten zentraltasuna geldiezin dela.

Covid-19aren izurria hasi zenetik, bizitzarako beharrezkoak diren interakzio asko digitalizatu egin dira. Online jarduerak giza baliabide asko eta azpiegitura teknologiko handiak behar dituzte eta euskal subiranotasuna bermatzeko beharrezkoa da baliabide horiek guztiak publikoak izatea.

EHU Euskal Herriko unibertsitate publikoko errektore ohi Nekane Balluerkak argi esan zuen 2020an, el-karrizketa batean: «EHUk inbertsio handi bat egin beharko du eraldaketa digitala martxan jartzeko». Baina hitz horiek airean geratu ziren eta EHUren zerbitzu digital kaskarra ez zen eraldatu. Hori konpontzera etorri da egungo errektore den Eva Ferreira.

Ferreirak proposatutako mirarizko konponbidea zerbitzu publikoa zen posta elektronikoa pribatizatzea izan da. Datorren ikasturtetik aurrera, EHU Euskal Herriko unibertsitate publikoan ikasi nahi baduzu Microsoften menpe dagoen posta elektronikoa eduki beharko duzu. Horrela funtzionatzen du hezkuntza-aren pribatizazioak, akordio publiko-pribatuen bidez XXI. menderako ezinbestekoak izango diren azpiegiturak multinazional estatubatuaren eskuetan utziz.

Zertarako xahutu diru publikoa jabetza intelektual propioa berma dezaketen software askeetan? Zertarako garatu subiranotasuna berma dezaketen azpiegitura teknologiko lurraldetuak? Zertarako sortu kalitatezko zerbitzu publikoak aurrera ekarriko dituzten lanpostu publikoak? Arazoaren konponbidea askoz ere errazagoa da, utz dezagun dena, gure datuekin zer egingo duen ez dakigun arren, Microsoften eskuetan.

Aitzakia zerbitzu publikoaren eraginkortasuna bermatzea da, baina lortzen den gauza bakarra diru publikoa erabiliz pribatua finantzatzea da, zerbitzu publikoaren eraginkortasunean inolako onura nabaririk ekarri gabe.

Hau ez da noski EHUk azpikontratazio bidez pribatizatu duen lehenengo zerbitzua, horren adibide argiak dira unibertsitate publikoa garbitzen duten emakumeen lan baldintza duinak errespetatzen ez dituzten garbiketa enprekin egindako akordioak. Garbitzaileen grebaldiek eta protestek gertutik irakatsi digute behin akordio publiko-pribatua egina dagoenean EHUk duen erantzukizun guztia albo batera uzten duela. EHU koi-taduak ezin du ezer egin, zerbitzu hori ez baitute beraiak kudeatzen.

Publikoaren gaitasun politikoa azpikontratazio bidez deuseztatzea ez da merkatuaren premia objektiboa, estatuen konplizitate osoarekin egindako gobernugintza neoliberal da. LAB sindikatuak egindako salaketetan adierazi duen bezala, bi bide baino ez daude, kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzea edo diru publikoa (arloan pribatua bakarrik indartzen duen) azpikontratazioetan xahutzea.

Jule Goikoetxeak (2017) “Demokraziaren pribatizazioa”-n azaltzen du ezin dela demokraziarik eduki, ez badira tokian toki lurraldetzen botere teknologiak, egitura eta gaitasun publiko politikoak eta ongizate kolektiboa. Gure lurraldean, diru publikoz eta ondo finantzatuta gauzatu beharko zen digitalizazioa enpresa pribatuen esku uztea demokrazia edukiz hustea da.

Publikoa ahultzen duten politika neoliberaleri aurre egiteko sortu da “EHU ez dago salgai!” UPV/EHU-n pribatizazioen kontrako plataforma. Haren eskaerak gure datu pertsonalak enpresa pribatu baten esku ez uztea, Informazio eta Komunikazio Teknologien zerbitzuen kudeaketan pribatizazioa baztertzea eta software librearen alde benetako konpromisoa hartzea dira.

Errektoretzak eskaera horiei entzungor eginez gero, EHUren izaera publikoaren kontrako eraso larria gauzatu du. Baina argi izan dezatela, hezkuntza publikoaren defentsan gaudenok ez garela bitartean besoak uztarturik geldituko. •

INDARKERIA ZIBERNETIKOA

3D antiojoak kendu ordeztu, matxismoa geldiarazteko betaurreko moreak jantziz

 JENDARTEA / Iraia OIARZABAL MUJKA

Azken hilabeteetako hemerrotekari begira jarrita, gertakarien larritasunagatik eta salatzaileen babesgabetasunagatik deigarria den kasu bat hartuko dugu hizpide. Facebooken enpresa nagusi Metak abiarazitako 3D errealtateko unibertso berrian sufritutako sexu erasoak salatzen zuen Nina Jane Patel ikertzaileak. Salaketak neurriak hartzea behartzen du enpresa, baina gertaeren sekuentzia oso argigarria da eremu honetan dauden gabeziak ulertzeko. Lorena Fernandez, Maitane Valdecantos eta Estibaliz Linares adituekin hitz egin dugu auzian sakontzeko.

Goazen gertakarietara. «Elkartu eta 60 segundora, 3-4 gizonezko avatarren jazarpena jasango nuen, hitzez eta sexualki, gizonezkoen ahotsekin. Urruntzen saiatu nintzenean, oihu egin zidaten: ‘Ez esan ez zaizunik gustatu’». Hala azaldu zuen Nina Jane Patel psikoterapeuta eta ikertzaileak Horizon Worlds-en izandako esperientzia “Errealitatea edo fikzioa?” artikuluan.

Salaketaren ondorengo erreakzioek erasoan sakondu zuten. «Ez aukeratu avatar femenino bat», «kendu betaurrekoak eta listo» edo «ez izan tentela, ez zen benetakoa» bezalako erantzunak jaso zituen. Mundu errealean gertatzen denaren pareko, fokua biktimarengan jartzen da kasu honetan ere.

«Betaurrekoak kentzeko? Kalte emozionala hor dago eta berbera da. Alde bakarra da ez dela eraso fisikorik egon. Interneten egiten den jazarpen sexuala ez da txantxa bat, ezta gutxiago ere. Mundu analogikoan gertatzen dena errepikatzen da espazio honetan, baina digitalaren

Hezur eta haragizko errealtatean bezala, jazarpen sexistak mundu birtualera egin du salto. Ez da ezer berria. Modu askotariko erasoak izan dira sareen azpimunduan: ziberjazarpena, intimitatearen urraketa, Metabertsoan egindako eraso sexualak... Baina, zer egin daiteke honen aurrean? Ba al da esku hartzeko baliabiderik?

ezaugarriekin eta horrek aplikatu egiten du», dio Lorena Fernandez Deustuko Unibertsitateko ikertzaileak.

Ildo horretan, Metak hartutako jarrerari erreparatzen dio. «Enpresak dioena da, ‘bueno, ba, babestu zaitez zu’. Bortxatu ez zaitzaten kalera ez irteteko esaten dizutenean bezala da», salatu du. Patelen salaketaren aurrean, Metak derrigorrezko distantzia moduko bat sartzea erabaki du, «espazio pertsonala inbaditzea» saihesteko. «Berriratu gu gara geure burua babestu behar dugunak. Pisua jazarpen gaituen horretan jarri beharrean, gu babestu behar gara, gu ateratu behar gara sare sozialetatik...», dio.

Tamalez, kasu hau ez da salbuespena. The Extended Mind erakundeak egindako ikerketaren arabera, errealtate birtualaren erabiltzaileen %49k jazarpen birtuala jasaten dute. Iruizkin arrazistak eta homofoboak edo mehatxuak dira ohikoak. Aldi berean, zenbait jarrerak motaren aurrean oraindik dauden hutsune legalak arazoa larriagotzen dute.

ERASOAK JASAN DUENAREN EMOZIOAK

Eraso hauek espazio fisikotik birtualera salto egitearekin batera, larritasunaren inguruko eztabaida piztu da. Zenbaitek garrantzia kendu izan diote “beste mundu horretan” gertatutako “anekdota” bailitzan. Adituen arabera, mundu hau birtuala izan arren, pertsonen bizirik dituzten esperientziak benetakoa izango dira. Hala baieztatu zuen Patelek ere: «Neurri batean, nire erantzun fisiologiko eta psikologikoa errealtatean gertatu izan balitz bezala izan zen».


Espazio birtualen asmoa da teknologiak ahalbidetzen duen bezain erreala izatea da.



Fernandezen hitzetan, errealtate birtualean ez dago inongo «geruza analogikorik». «Betaurrekoak jartzen dituzu eta bertan zaude, erabat murgiltzailea da». Marc Zuckerbergen Metabertsoan ukiezina dena senti daiteke sentsazioak simulatuz. Baina, horrez gain, ukimenaren sentsazio oso zehatza sortzen duen eskularru haptikoa garatu du.

Katherine Cross, Washingtongo Unibertsitateko doktoregoko ikaslea, Metabertsoaren alderdi fisiko eta birtualaren arteko lerro mehe hori azaltzen saiatzen da: «Errealitate birtuala, funtsean, zure garuna engainatzean oinarritzen da, inguratzen duen mundu birtuala errealtzat har dezan». «Errealitate birtualeko jazarpena denean –sexu eraso, adibidez–, esan nahi du zure gorputzak erreal gisa tratatzen duela lehen unean, zure buru kontzientea egunean jarri eta hori fisikoki gertatzen ari ez dela baieztatu baino lehen», gehitu du.

Puntu honetan arrakala digitalaz hitz egin beharrean ikusten gara. Laburrean, lehen arrakala digitalak teknologia berriekiko irismenari egiten dio erreferentzia. Bigarrenak aldiz, irismena edukita teknologia horien erabileran emakume eta gizonen arteko intentsitate eta gaitasunen desberdintasunarekin du zerikusia. Hirugarren arrakalari erreparatuko diogu zehazki. Bertan hasten dira sareetan erreproduzitzen diren kodeak, estereotipoak, patroiak eta genero rola definitzen. Hemen barnebildu behar ditugu teknologiaren eremuan gertatzen diren indarkeria matxistak: ziberjazarpen sexual eta sexista, ziberindarkeria sinbolikoa, ziberkontrola eta sare sozialetan



hainbeste azaltzen den gorputzen kontrako kultura. «Hauek dira teknologia berrietan dauden biolentziak baina kodeak, egiaz, zaharrak dira. Plataforma hauek egiten duten bakarra da hau gehiago anplifikatzea. Feminismotik gure eskubideen defentsan kalera atera garen honetan, paraleloki kale digitaletatik bota nahi gaituzte», ohartarazi du Lorena Fernandezek gertatzen ari denaren inguruan.

Iritzi berekoa da Estibaliz Linares. Arlo honi erreparatutako bere ikerketa lanean, gazte eta nerabeengan fokua jarrita. Bere ustez, «begiratu behar duguna da zein ari den edukiak sortzen eta zer eduki mota sortzen den. Baita ere nola ari garen jarduten mundu digitalean. Honetatik ez baditugu beste praktika mota batzuk sortzen, ez badugu hezkuntza digital kritikoago bat zabaltzen, kanon berdinak erreproduzitzen jarraituko dugu».

Metabertsoan mundu analogikoan azaltzen diren jarrerak erreproduzitzen direla nabarmentzen dute adituek.
GETTY IMAGES

Difusioaren eta intentsitatearen faktoreak nabarmentzen ditu ikerlariak. «Eduki hori jende mordo batek partekatuko du. Lehen ikasgelan edo eremu sozial edo sentimentalean eraso bat pasatzen bazen, bertan geratzen zen. Orain teknologiaren bidez zabaltzen da eta ezin duzu hori mugatu. Anonimotasunaren faktorea ere hartu behar da kontuan. Askotan ez dakizu nor ari zaizun min egiten».

Hutsune legalaren inguruan ere ohartarazi du eta hori alda-

tu bitartean jendartearen egin beharreko pedagogia aipatu du. «Argi izan behar dugu, norbait sexualki ikaritzen gaituen espazio bat sortzen ari den bakoitzean, berdin duela online edo offline eremu batean izan. Gehien gertatzen diren erasoetako batzuk dira, baina oso normalizatuta daude: komentario sexistak, jazarpena... Are zaurgarriago egiten gaituen bortizkeria forma bat da eta hori akreditatuko duen tresnak behar ditugu. Garrantzitsua da desnormalizatzea,

«Plataforma hauek gehiago anplifikatzen dute eraso. Feminismotik gure eskubideen defentsan kalera atera garen honetan, paraleloki kale digitaletatik bota nahi gaituzte»

«Begiratu behar duguna da zein ari den edukiak sortzen eta zer eduki mota sortzen den. Baita ere nola ari garen jarduten mundu digitalean»

izena jartzea eta berau borrokatzeko estrategiak sortzea. Eta noski, legeak indarkeria mota hau jasotzea», dio.

HUTSUNE LEGALAK


Segurtasunik eza eta biktimak babestuko dituen legedia baten falta dira gaia aztertzerakoan nabarmendu beharreko bi ideia. Adibidez, zer gertatzen da sare sozialetan gure irudi edo mezu bat partekatzen dugun unetik aurrera? Oraindik ere imajinatzea kostatzen zaigun dimentsioa har dezake teknologia hauen zurrunbiloan sartzen den momentuan. Ikusi ditugu aspal-dion intimitatearen urraketari lotutako kasu ezagunak, ikus-entzunezko plataforma handiek ere landu dute gaia. Galdera hau da: noraino babesten gaitu legeak eremu honetan izan daitezkeen eraso edo arrisku ezberdinen aurrean?

«Nire inpresioa da oraindik eraikuntzan dauden munduez hitz egiten ari garela, legedia atzetik doa. Kode penalean tipifikatuta dagoena ilegala da arlo digital zein analogikoan, hori argi dago. Hitz egiten ari garen kasuari dagokionez, salaketa bat dago Metabertsoan gertatutako eraso batengatik eta susmoa daukat arlo legala oraindik ez dagoela prest horretarako», aipatu du Fernandezek. Beraren bidez heldu ga-

ra Maitane Valdecantosen bulegora. Teknologia berrien arloko legedian aditua da bera eta gai honen inguruko hainbat xehetasun eman dizkigu.

Lehenik eta behin aipatu digu, Metabertsoan izandako salaketen harira, gaur egun ez dagoela legedi penalik eremu zehatz honetarako halako eraso edo bestelako delitu mota batentzako. Ez dago tresna legalik halakoei aurre egiteko. Jarrera erasokorrak gero eta

Eremu birtual hauen ezaugarrietako bat da bertan ikusi eta bizitzen dena asko gerturatzen dela errealitatera, teknologia berriek hala ahalbidetuta.
GETTY IMAGES



ohikoagoak diren honetan, iritzi ezberdinak daude arlo legallean egin beharko litzatekeenari buruz. Batzuen ustez, mundu birtualeko delituak ez dira desberdintzen errealitatean egiten direnetatik, alde bakarra da ez dugula ikusten delitua egiten duenaren aurpegia. Korronte honetan kokatzen direnek uste dute kasu hauek indarrean dagoen legedi penalaren baitan kokatu behar direla.

Beste korronte batek dio arlo birtualean gertatzen diren eraso edo delituak kasuan kasuko aplikazio teknologikoaren barruan tratatu behar direla; horrek, ordea, muga nabarmenak ditu Meta eta Patelen kasuan ikusi den bezala. Valdecantosen hitzetan, aukera bat izan daiteke delitua egin duen erabiltzailea Metabertsotik kanporatzea. Metaren kasuan, aurreikusita dago sare sozialemu

aditu legalez osatutako “epaitegien” existentzia.

Neurriok nahikoa diren edo ez, hori da mahai gainean dagoen eztabaida. Adituak aipatzen duenez, aztertzen dugun kasuan «kontaktu fisikorik ezak» zaildu egiten du erasook indarrean dagoen mota penalean sartzea.

Sexu jazarpena esperimentatzeko orduan betaurrekoak kentzea erabat deskonektatzeko aukera bat da, baina horrek ez du atzean dagoen jarrera ezabatzen. Patelek adierazi zuen «esperientzia ikaragarria» izan zela, «hain azkar gertatu zena eta segurtasun-hesia jartzea pentsatu baino lehen». Entzungailuak kentzea ez da irtenbide integral bat erasoan esperimentatzen duenarentzat. Halaxe laburbildu zuen Patelek: «Trauma hau gure atzetik dabil, gure buru eta gorputzetan bizi da».

«Argi izan behar dugu, norbait sexualki ikaratzen gaituen espazio bat sortzen ari den bakoitzean, berdin duela online edo offline eremu batean izan»

Sexu jazarpena esperimentatzeko orduan betaurrekoak kentzea erabat deskonektatzeko aukera bat da, baina horrek ez du atzean dagoen jarrera eta eraso ezabatzen

Har ezazu(e) muxu bana

**Miren Azkarate
Badiola**

Bizitzak musu bat ematen badi-zu, hartu eta gozatu». Gaurkoan nik ematen dizut zuri Kaiku, azkena izango da. Joan zara, nahiz eta hilabete asko zeneraman berriz ere ezkutuan. Gazte garaian etxean eta oraingo honetan zure buru barruan. Jende askok eta desberdinak eman dizu azken agurra, eta hori ez pentsa askok lortzen dutenik. Badakizu jende desberdin horren artean zure hilkutxa ixteko arduraduna polizia bat izan dela? Jode, Kaiku, azken momentura arte txakur-rak ondoan. Ez nekien Estatu frantse-sean horrela zenik, ene! Banekien, adibidez, gauetan farmaziara joateko ere

haiei deitu behar zaiela, bestela ez zaituztelako artatzen. Zenbatetan geldituko ginen minez edo negarrez ez bertaratzeagatik. Horrela gelditu nintzen ni txupeterik gabe!

Etxean, jaio nintzenetik entzun dut zure izena, bueno, ezizena, hobeto esanda, eta zure hamaika abentura eta desbentura. Gurasoen lagun mina izan zara. Ez dakizuenentzat, pentsa, aitak “Kaiku” izena jarri zion bere txakur-ri! Eta oraindik gogoan dut muga pasatu zenuenean eta zure Altzara iritsi zinenen nire amari telefonoz esandakoa: «Juli, jada ez dago margari-tarik Altzan!»

Bizitzak nahi izan du orain zuen ondorengoak, hurrengo belaunaldikoak, ere lagun izatea. Zuen bide beretik ari gara gure bidea elkarrekin egiten. Borrokan eta bizitzan. Eta nork daki zuen bilobak gerora ere elkartuko diren non-bait!

Polita da utzi duzuna, Kaiku. Jarraituko dut Piliri nire haurren ar-gazkiak bidaltzen noizean behin; jarraituko dut Aitziberrekin irratiko eta bestelako proiektutan parte hartzen; eta jarraituko dut Maiderrekin nire eguneroko laguntasuna elikatzen. Orain, zure baimenarekin, haiei eman behar dizkiet muxuak. •

Suak erre ez dituenak

Antton Izagirre

Bazterrak sutan izan ditugu au-rreko asteetan, gure gehiegike-riak eraginda, agian. «Gure» diot, lotsagabe ez izateko eta betebehar osoa besteen gain ez jartze-arren; horretan ere, guztiok dugulako ze-resana eta zeregina, baino denok eran-tzukizun berbera ez dugulakoan nago.

Inoiz ikusi gabeko beroaldiak izan di-tugu. Beroaldi hori hain beharrezkoa eta estimatua dugun Eguzkitik datorki-gu; orain lehen bezala bero iturri bera dugu, baina bada zerbait orain, lehen-a go ez zena. Horretan adituak diren zientzialariak esan eta esan ari zaizki-gu, lehenago euriteak bezala, erregai fosilen gehiegizko erabileraren efektua dela eguzkiaren erasana, aste hauetan

gertatutakoa maiz errepika ez dadin erretzeari utzi behar diogula. Baina ho-rren atzean negozio itzela dagoen bitar-tean, haiek aginduko dute. «Haiek» izen eta abizenak dituzte eta ez dute zien-tzialarien zentzu onaz entzun ere egin nahi. Zientzia ere gauza ona da sakelak betetzeko balio badie, ez bestela.

Su txar horiek maite ditugun bazte-rrak erre eta kiskali dizkigutenean, ba-tzuk itzali eta geuk piztu ditugu beste suak, San Joan suak, udari ongietorria emateko, eta gure grina txarrak, barne-ko arrangurak, haserre eta ulertezinak, etsipen eta saminak, gordetako sekre-tuak... sutara eraman ditugu, gogoz bo-ta, suak errauts egin ditzan. Erritu ma-giko horren bidez itxaropen, asmo,

akordio, eta harreman osasuntsuak errautsetatik zutituko direla amestu dugu, dantza eta kantuz.

Hori hala balitz, eskatu duguna erre izan balitz, amaiturik egon beharko li-rateke Ukrainako gerra, Mercedeseko langileen greba, Osakidetzaren zerbi-tzuen murrizketa, «Aita Mari»-ren itsa-soratzea, Nafarroako suhiltzaileen de-manda, presoan espetxeratzea, Seaskako guraso, irakasle eta ikasleen borroka, gazteen aurkako epaiketa bi-dea, pentsiodunen aldarria eta hainbat desio gure memorian gordeak.

Suak erre ez dituenak bihar ere hor izango ditugu bizitzeko, borrokatzeko eta amesten jarraitzeko. Jaioko dira ki-mu berriak. •

**Ainhoa Yera Gil**

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Adimen artifizialak giza lanak ordezkatzeko ote ditu?

Adimen artifizialaren (AA) gorakada handia dela-eta, aurreikuspen askok diote denborarekin hainbat arlotan giza lana ordezkatzeko duela. Kezka ez da berria; automatizazioaren inguruan antzeko beldurak adierazi dira urte askoan.

Hala ere, AAren garapenaren erritmoak eta irismenak iradokitzen du ordezkapen hori guk uste baino hurbilago egon daitekeela. Potentzia konputazionalan, datu multzo handietan eta ikaskuntza automatikoan egindako aurrerapenei esker, AA sistema sofistikatuagoak erabil daitezke, zehaztasun eta abiadura handiagoz, datu multzo handiagoak erabiltzeko.

Irakurri berri duzun testua Interneten eskuragai dagoen Smodin.io webguneak artikulua izenburuko galderari emandako erantzuna da. Tresna honek aukera ugari eskaintzen ditu: testuak berriro idaztea eta hitzak automatikoki aldatzea, testuan plagiari dagoen egiaztatzea, AA idazlearen bidez kalitate handiko testuak sortzea e.a. Testuen sorkuntza automatikoa momentuz ez da euskaraz eskaintzen, beraz, Elhuyarren Elia itzultzaile automatikoaren laguntzaz itzulpena egin da.

Idazle eta itzultzaileok agian deseroso sentitu zarete hau irakurri ostean eta ez nau harritzen. Pentsa zer muturretara iritsi garen, 2019an "The Guardian" egunkariak berak GPT-3 ize-neko AAk idatzitako iritzi ar-

tikulu bat argitaratu zuenerako. Tresna hau Elon Musk sortzailekide duen OpenAI irabazi asmorik gabeko ikerketa enpresak garatu du, besteak beste, Microsoft-ek finantzatzaren duena. Bere ahalmena izugarria da eta argi uzten du adimen artifiziala gai dela zeregin intelektualak ikasteko, pertsonen egiten dugun bezala.

Zientzia dibulgazioaren esparruan ere, berriak kezagarriak dira. 2019an esaterako, «Lithium-Ion Batterie: A Machine-Generated Summary of Current Research» liburuaren argitalpenaren berri izan genuen. Zer berezitasun du liburu honek? Bada, bere osotasunean modu automatikoan idatzia dela. Zehazki, Beta Writer izeneko progra-

ma da egilea, Springer Nature eta Frankfurtoko Goethe Unibertsitateko ikertzaileen elkarlanaren emaitza dena.

Informatikarientzat ere berriak ez dira oso itxaropentsuak. Azken urteetan aplikazio asko sortu dira kodea automatikoki inplementatzeko gai direnak, GitHub Copilot kasu. AAN oinarritutako sistema honek kodea idazten laguntzen du iradokizunak eginez eta erabiltzaileak egindako iruzkinetan oinarrituz, funtzio osoak eta kodea automatikoki sortzeko gai da.

Diseinu grafikoaren zaleoi agian sinestezina irudituko zaizue artikuluan txertatutako irudia ere AA batek sortu duela jakiteak. Zehazki, DALL E mini sare neuronala (GPT-3 tresnaren bertsio bat) erabili da, testutik abiatuz irudiak automatikoki sortzeko gaitasuna duena. Kode irekiko softwarea da eta bere iturburu kodea GitHub-en eskuragai dago.

Beraz, zoritxarrez, lehen paragrafoko iragarpen automatikoa ez da errealitateetik asko urruntzen eta AAren mugen inguruko eztabaida sakona pizten du. Agian, begi onez ikusi izan genuen lan fisiko gogorak automatizatzeko ideia. Orain, aldiz, giza arrazoimenari lotutako jarduerak ordezkatzeko txanda iritsi bada, zeintzuk izango dira gure etorkizuneko lanbideak? Antza, AA bati galdetu beharko diogu. •



Goian ageri den irudia AA batek sortu du.

GAUR8

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



JOSU LANDA

ITURRALDE, ATXAGA ETA SARRIONANDIA, MARTUTENeko ESPETXEAN

Argazia Martuteneko espetxean egin zuten, 1985ean, Josu Landa "Argia" aldizkariako kazetariak Joseba Sarrionandia idazleari egindako bisitetako batean. Bisitan Sarrionandiaren lagun eta Pott bandako kide ziren Bernardo Atxaga eta Joxe Mari Iturralderekin topo egin zuen. Garai hartan "Argia" aldizkarian oso kamera txikiak erabiltzen zituzten, minoxak, oso trinkoak eta arinak ziren eta metxero baten tamaina zuten. 15 mm-ko optika zeramaten, oso erraz eramaten ziren eta oso erabilerrazak ziren. Argazia horietako batekin dago egina. Hilabete batzuk geroago, uztailaren 7an, Iñaki Pikabeak eta Joseba Sarrionandiak Martuteneko espetxetik ihes egin zuten.

011 bidaiaari

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



dagoeneko
zure
kioskoan
salgai

1,50€

eta gainera...

JOKULSARLON
ZURI ETA URDINA
ON THE ROCKS

VOLCANO BOARDING
ADRENALINA
ALDAPAN BEHERA

ROVOS TRAIN
PRETORIA-
LURMUTUR HIRIA

SAN MARTIN IRLA
PARADISUA
ERDIBITUTA

DOLOMITAK
MENDIEK HITZ
EGINGO BALUTE...

Egin planak Arte klasikoa gurean Bilboko Berreginen Museoaren distira. **Bertatik bertara** Gastronomia eta ardo jardunaldiak Oionen, udako Hartortxu Rock berezia, Errobi festibala Itsasun, Donostiako Musika Hamabostaldia.

Mundua pasieran Sky Bridgea Txekian, Slackline Mont-Saint-Michelen, Kalea Claudia Cardinaleri, Apple ordenagailuz osaturiko museoa...

